

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

URNIETAKO UDALA

Iragarkia

Udal espazio eta materialen lagapena eta erabilera arautzen duen udal erregelamendua.

Urnietako Udalak 2022ko azaroaren 29an ohiko Osoko Bilkuran, eta akta behin betiko onartzean geldituko den testua gorabehera, besteak beste, ondorengo adostu zuen aho batez:

1. Hasierako onarpena Urnietako Udal espazio eta materialen lagapena eta erabilera arautzen duen udal araudiari (eranskina).
2. 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita espediente jendaurreko informazio-aldian jartzea interesdunek espediente azter dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Jendaurreko informazio-aldia igaro ondoren ez balitz erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu, behin betiko onartutzat joko da aipatutako araudiaren aldaketa, erabaki berririk hartzeko beharrik gabe.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Urniet, 2022ko abenduaren 1a.—Jorge Segurado Iriondo, alkatea. (7602)

Udal espazio eta materialen lagapena eta erabilera arautzen duen Udal Araudia.

ZIOEN AZALPENA

Ondarea eraginkortasun- eta errentagarritasun-printzipioen arabera kudeatzea toki-erakundeen ondasunei buruzko legerian jasotako erantzukizuna da. Udalen zeregina da, herritarrengandik hurbilen dauden administrazio publikoak diren aldetik, beren baliabide eta ondasunak eskura jartzea, modu koordinatuan, elkar-teen sare kultural, solidario eta sozialaren sorrera sustatzeko.

Aipatutako arrazoiengatik, Urnietako Udalak udal-jabetzako espazioen eta materialen erabilera laga izan die irabazi-asmorik gabeko elkarteei eta pertsona fisiko eta juridikoei, interes publiko jarduerak egiteko.

Indarrean dagoen araudia 2004. eta 2005. urteetan onartu zen, eta, beraz, berritu egin behar da.

Arau honek, beraz, bi helburu ditu. Lehenik eta behin, udaleko espazioak eta materialak baldintza berdinetan erabiltzeko prozedura arautzea; eta, bigarrenik, espazio eta material horien erabilera eta funtzionamendua arautzea.

Erregulazio hori ezartzeko, erregelamendu hau onartzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluan erakunde espazioei eta materialei airtortutako erregelamendu- eta autoantolaketa-ahala aplikatuz.

AYUNTAMIENTO DE URNIETA

Anuncio

Reglamento municipal regulador de la cesión y uso de los espacios y materiales municipales.

Que el Pleno del Ayuntamiento de Urnieta en sesión ordinaria celebrada en fecha 29 de noviembre de 2022, y a reserva del texto que resulte de la aprobación definitiva del acta, acordó por unanimidad, entre otros, lo siguiente:

1. Aprobar inicialmente el Reglamento municipal regulador de la cesión y uso de los espacios y materiales municipales (anexo).
2. Someter el expediente a información pública durante un plazo de 30 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que las personas interesadas examinen el expediente y presenten las reclamaciones y sugerencias que estimen pertinentes.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación o sugerencia alguna, se tendrá por adoptado definitivamente el acuerdo hasta entonces provisional, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Lo que se publica para general conocimiento.

Urniet, a 1 de diciembre de 2022.—El alcalde, Jorge Segurado Iriondo. (7602)

Reglamento Municipal regulador de la cesión y uso de los espacios y materiales municipales.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Gestionar el patrimonio bajo principios de eficacia y rentabilidad, es una responsabilidad recogida en la legislación sobre bienes de las entidades locales. Es tarea de los Ayuntamientos, como administración pública más cercana a la ciudadanía, poner a disposición medios y bienes de su pertenencia para, de forma coordinada, fomentar la creación del tejido asociativo cultural, solidario, social.

Por los motivos aludidos, el Ayuntamiento de Urnieta ha venido cediendo el uso de espacios y materiales de propiedad municipal tanto a agrupaciones sin ánimo de lucro, como a personas físicas y jurídicas para la realización de actividades de interés público.

La normativa existente fue aprobada en los años 2004 y 2005, siendo por ello necesaria su renovación.

La presente norma tiene, por tanto, una doble finalidad. En primer lugar, regular el procedimiento para que el acceso al uso de espacios y materiales municipales se produzca en igualdad de condiciones; y en segundo lugar, regular el uso y funcionamiento de dichos espacios y materiales.

Para establecer esta regulación se aprueba el presente reglamento, en aplicación de la potestad reglamentaria y de autoorganización reconocida a las Entidades Espacios y materiales en el artículo 4.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

1. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen xedea da udal honen jabetzako udal espazio eta -materialen erabilera lagatzeko beharrezkoa den prozedura arautzea, bai eta lagapen-hartzaileek egin beharreko horien erabilera arautzea ere.

2. artikulua. Lagapenaren helburuak.

Erregelamendu honetan araututako lagapenak eta erabilerek helburu hauek lortzera bideratuta egon behar dute:

– Urnietako auzotarren, elkarten, kolektiboen eta bizitza osatzen duten gainerako elementuen arteko gune komunitarioen eta topaguneen erabilera partekatua bultzatzea.

– Hainbat elkarte eta/edo taldek Urnietan antolatzen dituzten musika-, kultura-, informazio-, prestakuntza-, hezkuntza- eta jolas-programak eta jarduerak abian jartzea erraztea.

– Lagapen horietarako erabilgarri dauden udal-baliabideak optimizatzea.

3. artikulua. Onuradunak.

Lagapen hori pertsona fisiko edo juridikoen alde egin ahal izango da, Urnietako herritarrei zuzendutako izaera kultural, sozial edo solidarioko jarduerak egiteko espazio bat behar duten elkarte eta/edo taldeen alde.

Ezingo zaie espazioa laga irabazi-asmorik duten erakundeei. Irabazi-asmoa duten erakundeek ordenantza fiskaletan ezarritakoa ordainduz alokatu ahal izango dituzte aretoak.

Elkarte batek ez du irabazi-asmorik izango bere estatutuetan hala jasota badago eta inolako jarduera ekonomikorik egiten ez badu, edo, jarduera hori eginez gero, jarduera horren emaitza estatutuetan ezarritako interes orokorreko helburuak betetzera soilik bideratuko bada, bazkideen edo hirugarrenen artean zuzeneko mozkinak banatu gabe.

Urnietako irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta partikularrek doan erabili ahal izango dituzte udal espazioak eta materialak, betiere udal intereseko jarduerak egiten badituzte.

Urnietakoak ez diren eskatzaileek Udal Ordenantza Fiskaletan agertzen den zenbatekoa ordaindu beharko dute lokalak erabiltzeagatik.

4. artikulua. Baimendutako jarduerak.

4.1. Espazioen eta materialen erabilera-lagapenaren xede nagusia kultura-, arte-, hezkuntza-, gizarte-, kultura- eta jolas-jarduerak garatzea izango da, merkataritza- eta/edo irabazi-xederik gabe. Honako hauek joko dira halakotzat:

- Bilerak eta aurkezpenak.
- Hitzaldiak eta konferentziak.
- Ikastaroak, tailerrak edo mintegiak.
- Antzerki- edo dantza-emanaldiak.
- Kontzertuak, entzunaldiak.
- Ikus-entzunezko proiektzioak.
- Erakusketak.
- Ekitaldi politikoak.
- Entseguak.

4.2. Lagapen onuradun diren elkarte edo kolektiboei konpromisoa hartzen dute Udalak hizkuntza-normalizaziorako ezarritakoa betetzeko, eta, horregatik, egiten dituzten jardueren ondorioz euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dituzten agiri edo idazki guztiak (kartelak, abisuak, iragarkiak, programazioak, liburuxkak...), 1997ko martxoaren 18ko Osoko Bilkuran aho batez

TÍTULO 1

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

El objeto de este reglamento es la regulación del procedimiento necesario para la cesión de uso de espacios y materiales municipales propiedad de este Ayuntamiento, así como la regulación del uso que de los mismos hayan de hacer las personas cesionarias.

Artículo 2. Objetivos de la cesión.

Las cesiones y usos regulados en este reglamento deben estar orientados a la consecución de los siguientes objetivos:

– Propiciar el uso compartido de lugares comunitarios y de encuentro entre los y las vecinas, asociaciones, colectivos y demás elementos integrantes de la vida del municipio de Urnieta.

– Facilitar la puesta en marcha de programas y actividades de carácter musical, cultural, informativo, formativo, educativo y lúdico que se organicen por las diferentes asociaciones y/o grupos en Urnieta.

– Optimizar los recursos municipales disponibles para estas cesiones.

Artículo 3. Personas y/o grupos y asociaciones beneficiarias.

Esta cesión podrá realizarse a favor de personas físicas o jurídicas, a favor de asociaciones y/o grupos que tengan necesidad de un espacio para actividades de carácter cultural, social, solidario... dirigidas a la ciudadanía urnietarra.

No se podrá ceder el espacio a entidades con ánimo de lucro. Las entidades con ánimo de lucro podrán alquilar las salas abonando lo estipulado en las ordenanzas fiscales.

Se considera que una asociación no tiene ánimo de lucro cuando así figure en sus Estatutos y no desarrolle actividad económica alguna o, en caso de desarrollarla, el fruto de esa actividad se destine única y exclusivamente al cumplimiento de las finalidades de interés general establecidas en sus Estatutos, sin repartición de beneficios directos entre sus asociados y asociadas o terceras personas.

Las asociaciones y particulares sin ánimo de lucro de Urnieta podrán utilizar gratuitamente los espacios y materiales municipales siempre que realicen actividades de interés municipal.

En el caso de solicitantes que no sean de Urnieta, deberán abonar, por el uso de los locales, la cantidad que conste en la Ordenanza Fiscal Municipal.

Artículo 4. Actividades permitidas.

4.1. La cesión de uso de espacios y materiales irá principalmente destinada a desarrollar actividades de carácter cultural, artístico, educativo, sociocultural y lúdico, sin fines comerciales y/o lucrativos y entendiéndose como tales las siguientes:

- Reuniones y presentaciones.
- Charlas y conferencias.
- Cursos, talleres o seminarios.
- Actuaciones teatrales o de danza.
- Conciertos, audiciones.
- Proyecciones audiovisuales.
- Exposiciones.
- Actos políticos.
- Ensayos.

4.2. Las asociaciones o colectivos beneficiarios de las cesiones adquieren el compromiso de cumplir lo establecido por el Ayuntamiento para la normalización lingüística, y por ello toda documentación o escrito (carteles, avisos, anuncios, programaciones, folletos,...) derivado de las actividades que desarrolle se redactará en euskara o en euskara y castellano según dicta la Ordenanza

onartutako eta 1997ko apirilaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 76. zenbakian, argitaratutako Euskararen Erabilera Normalizatze Arauei buruzko Udal Ordenantzaren arabera. 18 urtetik beherakoentzat antolatzen diren jarduerak euskara osoan egin beharko dira, justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

Euskarazko testuen hizkuntza-zuzentasuna bermatzeko, kolektiboek Udaleko Euskara Zerbitzua baliatu ahal izango dute argitaratu beharreko testuak itzultzeko edo zuzentzeko.

4.3. Lagapenen onuradun diren elkarte edo kolektiboek konpromisoa hartzen dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen Estatuko, autonomia-erkidegoko eta lurraldeko legerian ezarritakoa eta Urnietako Berdintasunerako III. Planean (2021-2025) xedatutakoa betetzeko. Hori dela eta, sexuen arteko desberdintasunak zuzentzea bilatzen den kasuetan izan ezik, ezin izango dira onuraduntzat hartu sexuaren ziozko bereizkeria egiten duten elkarte eta taldeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean araututakoaren arabera, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarri-rako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan araututakoetan ere.

Bereziki, honako atal hauei dagokienez:

- * Erabat debekatuta dago udal espazioetan edozein mota-tako eta formatutako edukiak erabiltzea, hala nola bideoak, irudiak, ahozko mezuak edo idatzizko mezuak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aurka egiten dutenak eta/edo sexuagatik, arrazagatik edo sinesmenengatik jardun iraingarriak sortzen edo bultzatzen dituztenak.

- * Hizkuntza idatzia, ahozkoa, beste edozein motatakoa edo firmatua erabiltzea inklusiboa eta ez-sexista izango da.

- * Ez dira onuradun izango beren onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik diskriminatzen duten elkarteak edo kolektiboak.

- * Ez dira onuradun izango sexua dela-eta edo otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako bereizkeria anizkoitzeko faktoreengatik diskriminatzailak diren jarduerak egiten dituzten elkarteak edo taldeak, ezta kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldian sexu-bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak ere.

- * Urnietako Udalak laguntza berezia emango die honako hauek egiten dituzten elkarte eta taldeei:

- Berdintasunaren arloan aurreikusitako helburuak lortzera bideratutako jarduerak egitea.

- Emakumeen herritar parte-hartzea sustatzea, edozein dela ere haien administrazio-egoera; mugimendu feministarena, sindikalismoarena eta elkarte-mugimenduarena, gizarte-, lan-, ekonomia-, kultura- eta ingurumen-politiken garapenean, bereziki kontuan hartuta otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1 artikulua azken tartekian aipatutako faktoreak betetzen dituzten emakumeen premiak.

5. artikulua. Lagapen motak.

Udalak hainbat motatako lagapenak egin ditzake espazio eta materialei dagokienez:

Izaera puntualeko lagapena: erabilera/egun bakarrerako edo noizbehinkako erabilera jakin batzuetarako. Material lagapenak unean unekoak baino ez dira izango.

Aldi baterako lagapena: erabilera erregularrerako edo ikasurte/urte baterako edo gehiagorako erabilerarako.

Municipal sobre Normas para la Normalización del Uso del euskera en el Municipio de Urnieta, aprobada por unanimidad en el Pleno celebrado el día 18 de marzo de 1997 y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 76 de fecha 24 de abril de 1997. Las actividades que se organicen dirigidas a menores de 18 años deberán ser íntegramente en euskera, salvo excepciones justificadas.

Con la finalidad de garantizar la corrección lingüística de los textos en euskera, los colectivos podrán contar con la ayuda del Servicio de Euskera del Ayuntamiento para traducir o corregir los textos a publicar.

4.3. Las asociaciones o colectivos beneficiarios de las cesiones adquieren el compromiso de cumplir lo fijado en la legislación estatal, autonómica y provincial vigente en materia de igualdad entre mujeres y hombres y con lo dispuesto en el III Plan para la igualdad de Urnieta (2021-2025) y por ello, salvo en los supuestos en que se busque un efecto de corrección de desigualdades entre sexos, no podrán obtener la consideración de beneficiarias aquellas asociaciones y colectivos que discriminen por razón de sexo, en los términos regulados en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, ni en los regulados en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Especialmente en lo relativo a los siguientes apartados:

- * Queda terminantemente prohibida la utilización en los espacios municipales de contenidos de cualquier clase y formato; ya sean vídeos, imágenes, mensajes orales o escritos, que atenten contra la igualdad de mujeres y hombres, y/o generen o alienen prácticas denigratorias por razones de sexo, raza o creencias.

- * El uso del lenguaje escrito, oral o de cualquier otra clase o formato será inclusivo y no sexista.

- * No serán beneficiarias las asociaciones o colectivos que en su proceso de admisión o en su funcionamiento discriminen por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

- * No serán beneficiarias las asociaciones o colectivos que realicen actividades que sean discriminatorias por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, ni tampoco aquellas personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativamente o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el período impuesto en la correspondiente sanción.

- * El Ayuntamiento de Urnieta, apoyará especialmente a las siguientes asociaciones y colectivos:

- Las que lleven a cabo actividades dirigidas a la consecución de los fines previstos en materia de igualdad.

- Las que promuevan el ejercicio de la participación ciudadana de las mujeres cualquiera que sea su situación administrativa, del movimiento feminista, del sindicalismo y del movimiento asociativo en el desarrollo de las políticas sociales, laborales, económicas, culturales y medioambientales, considerando especialmente las necesidades de aquellas mujeres en las que concurren los factores mencionados en el último inciso del artículo 3.1 de la ley 4/2005 del 18 de febrero.

Artículo 5. Tipos de cesión.

Las cesiones de los espacios y materiales pueden ser de varios tipos:

Cesión con carácter puntual: para un único uso/día o varios usos esporádicos concretos. Las cesiones de material tendrán únicamente carácter puntual.

Cesión con carácter temporal: para uso regular o con duración prevista de un curso, año o superior.

6. artikulua. *Merkataritza eta/edo irabazi asmoa duten jarduerak.*

Udalak beretzat gordetzen du espazioak eta materialak merkataritza- eta/edo irabazi-asmoetarako erabiltzeko lagatzeko eskubidea, baldin eta lagapenaren onuraduna irabazi-asmorik gabeko talde edo elkarte bat bada, elkarte edo talde horren berezko helburuarekin lotutako jarduerak badira eta elkarrearen edo taldearen berezko izaera eta helburutik aldentzen diren jarduerak ezkututzen ez badituzte.

7. artikulua. *Lagapenen izaera.*

7.1. Lagapena egiten den unean indarrean dagoen ordenantza fiskalak ezartzen duenari kalterik egin gabe, honako jarduera hauek garatzea helburu duten lagapenak doakoak eta prekarioak izango dira:

– Udalarekin lankidetzat-hitzarmenen bidez antolatutakoak.

– Partikularrek edo kultura-, hezkuntza-, kirol-, gizarte- edo jolas-erakundeek antolatutakoak, betiere garatu beharreko jarduerak ez badakarte diru-kopururik kobratzea antolatutako ekitaldietan.

7.2. Lagapena egiten den unean indarrean dagoen ordenantza fiskalak ezartzen duena alde batera utzi gabe, honako hauek izango dira kostu bidez, hau da, ordain ekonomiko edo sozialarekin: espazioak eta materialak lagatzea legez eraturako klub eta elkarteei edo pertsona juridikoei, bertaratuei edo parte-hartzailei inskripzioa eta/edo kuotak kobratzea dakarten jarduerak egiteko, eta/edo etekinak lortzea.

8. artikulua. *Lagapen- eta erabilera-irizpideak.*

Erakundeentzako edo partikularrentzako erabilera-baimenak Urnietako Udalak antolatutako edo babestutako jarduerak instalazioak erabiltzearen mende egongo dira beti.

Lagapenaren xede den espazioa kokatuta dagoen espazio eta material bakoitza lagatzeko eta erabiltzeko irizpideak honela arautuko dira: eskabideei espazioak eta materialak esleitzeko, kontuan hartuko dira planteatzen diren premiak, espazioen eta materialen erabilgarritasuna eta garatu beharreko jardueraren tipologia eta ezaugarriak.

Udalak, eskaeraren xede den jardueraren izaera eta eskaerari dauten espazioak kontuan hartuta, eskatutakoak bestelako espazio baten erabilera lagatzea ebatzi ahal izango du, betiere alde zuzenarekin eskatzaileari jakinarazita.

2. TITULUA

UNEAN UNEKO LAGAPENA

9. artikulua.

Eskaera 7 egun lehenago aurkeztu beharko da, gune itxiak eta materialak erabiltzeko eskaera-inprimakiaren bidez, Udaleko Erregistro Orokorrean. Salbuespen gisa, eta aukera egonez gero, aurrerapen gutxiagorekin aurkeztutako eskaerei erantzun ahal izango zaie.

Sustapen Sailak eskaera jaso ondoren, eskatzailearekin harremanetan jarriko da, gunea edo materiala erabilgarri dagoela baieztatzeko eta lagapenaren baldintza zehatzak kudeatzeko (gilzak, espazioen kasuan).

3. TITULUA

ALDI BATERAKO LAGAPENA

10. artikulua.

Eskaera behar besteko aurrerapenaz aurkeztu beharko da, gune itxiak eta materialak erabiltzeko eskaera-inprimakiaren bidez,

Artículo 6. *Actividades con fines comerciales y/o lucrativos.*

El Ayuntamiento, se reserva el derecho de ceder el uso de espacios y materiales para fines comerciales y/o lucrativos, siempre que el grupo y/o asociación beneficiaria de la cesión sea un grupo y/o asociación sin ánimo de lucro, se trate de actividades relacionadas con la finalidad propia de dicha asociación y/o grupo y no encubran actuaciones que se desmarquen de la naturaleza y finalidad propias de la asociación y/o grupo.

Artículo 7. *Carácter de las cesiones.*

7.1. Sin perjuicio de lo que establezca la ordenanza fiscal vigente en el momento de la cesión, serán con carácter gratuito y a título de precario las cesiones que tengan como finalidad el desarrollo de las siguientes actividades:

– Las organizadas con el Ayuntamiento a través de convenios de colaboración.

– Las organizadas por particulares o entidades culturales, educativas, deportivas, sociales o recreativas, siempre que las actividades a desarrollar no supongan el cobro de cantidad alguna en los actos organizados.

7.2. Sin perjuicio también de lo que establezca la ordenanza fiscal vigente en el momento de la cesión, serán a título oneroso, es decir, con contraprestación económica o social: la cesión de espacios y materiales a clubs y asociaciones legalmente constituidas o personas jurídicas para la realización de actividades en las que se cobre inscripción y/o cuotas a las personas asistentes o participantes, y/o se obtengan beneficios.

Artículo 8. *Criterios de cesion y uso.*

Las autorizaciones de uso a entidades o particulares estarán siempre subordinadas a la utilización de las instalaciones por aquellas actividades organizadas o patrocinadas por el Ayuntamiento de Urnieta.

Los criterios de cesión y uso de cada uno de los espacios y materiales donde esté ubicado el espacio objeto de cesión se regirán de la siguiente forma: la asignación de espacios y materiales a las solicitudes se hará en función de las necesidades que se planteen, de la disponibilidad de espacios y materiales y del tipo y características de la actividad a desarrollar.

El Ayuntamiento, teniendo en cuenta la naturaleza de la actividad para la cual se realiza la solicitud y los espacios disponibles, podrá resolver la cesión de uso de otro espacio diferente al solicitado, siempre y cuando lo comunique con anterioridad a la persona, asociación y/o colectivo que realice la petición.

TÍTULO 2

CESIÓN CON CARÁCTER PUNTUAL

Artículo 9.

La solicitud deberá presentarse en el Registro General del Ayuntamiento con 7 días de antelación mediante el impreso de solicitud de uso de espacios cerrados y materiales. Excepcionalmente y en caso de disponibilidad se podrán atender solicitudes presentadas con menor antelación.

Una vez recibida la solicitud por parte del departamento de Promoción, se pondrá en contacto con la persona solicitante para confirmar la disponibilidad del espacio o material y gestionar los términos concretos de la cesión (llaves en el caso de los espacios).

TÍTULO 3

CESIÓN CON CARÁCTER TEMPORAL

Artículo 10.

La solicitud deberá presentarse en el Registro General del Ayuntamiento con antelación suficiente mediante el impreso de

Udal Erregistro Orokorrean. Sustapen Sailak, dokumentazioa zertu ondoren, dagokion txostena egingo du, organo eskudunak onar dezan. Ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio.

11. artikulua. Prozedura, ebazpena eta formalizazioa.

Lagapena interesdunak eskatu ondoren egingo da. Eskaera egiteko, dagokion inprimakia aurkeztu beharko da Udal Erregistroan, eta espazioa eta emango zaion erabilera zehaztu beharko dira.

Alkateari dagokio ebazpena ematea. Eskaera egin zenetik 3 hilabeteko epea igaro bada berariazko erabakirik jakinarazi gabe, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitatzeko joko da.

Erabilera-lagapenaren formalizazioa eta horren baldintzak dokumentu edo hitzarmen batean jasoko dira.

Prekarioa denez, udalak edozein unetan azkendu ahal izango du lagapena, kalte-ordainik gabe, interesdunari hilabete lehenago errekerimendua egin ondoren.

Hitzarmena deuseztatzearen arrazoia izango da haren bete-beharren bat ez betetzea. Kasu horretan, deuseztatu aurretik, Udalak 15 eguneko entzunaldia emango dio Elkarteari, egokitzat jotzen duena alega dezan.

4. TITULUA

ERABILERA- ETA FUNTZIONAMENDU-ARAU OROKORRAK

12. artikulua. Erabilera partekatua.

Aldi baterako espazioen lagapenen kasuan, irizpide orokor gisa erabilera partekatua bete beharra ezarriko da, eta horretarako baldintzak, ordutegiak edo datak finkatuko dira.

Espazioa eskatzen den jarduera eta helburuetatik ondorioztatzen bada ezin dela partekatu, baimen- edo lagapen-erabakiak erabilera eskusiboak ezarri ahal izango du.

Udalak, nahi izanez gero, erabilera-ordutegiak aldatu ahal izango ditu, espazio berean dauden elkarte edo kolektiboen benetako beharretara egokitzeko.

13. artikulua. Mantentzea.

Elkarteez arretaz zaindu beharko dituzte erabilera eskusiboko eta erabilera partekatuko espazio eta materialak, eta, oro har, higiezin osoa, bai eta altzariak ere, hala badagokio. Kide eta erabiltzaileek egitez edo ez-egitez eragin ditzaketen kalteen erantzule izango dira, eta beharrezko konponketak berehala eta beren kargura egingo dituzte, Udalaren alde aurreko baimenarekin. Erakunde onuradunari dagokio lagapenean sartutako ondasun higigarriak mantentzea eta konpontzea.

Erakunde onuradunek ezingo dute inolako obra edo jarduketarik egin erabilera eskusiborako edo partekaturako lagatuko espazioan, ezta, oro har, higiezin osoan ere, organo eskudunaren berariazko baimenik gabe.

Erakunde onuradunek baimena eskatu beharko dute espazioetan eta materialetan tresna elektrikoak (berogailuak edo antzekoak) erabiltzeko.

Obrak edo jarduketak ondasun higiezinaren onurarako gertatu dira, eta ez dute inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango. Erakunde onuradunek obrak baimenik gabe egiten badituzte, Udal Administrazioak ondasuna jatorrizko egoerara itzultzeko agindu ahal izango du, kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik gabe. Hala egin ezean, itzulketa-obrak subsidiarioki egin ahal izango dira, eta erakundeak kostua ordaindu beharko du. Itzulke-

solicitud de uso de espacios cerrados y materiales. El departamento de Promoción, una vez analizada la documentación, emitirá el correspondiente informe para su aprobación por el órgano competente. La resolución le será notificada a la solicitante.

Artículo 11. Procedimiento, resolución y formalización.

La cesión se realizará previa petición de la persona interesada. La solicitud se formalizará presentando el impreso correspondiente en el Registro General del Ayuntamiento, especificando el espacio solicitado y el uso que se le pretende dar.

La resolución corresponderá a la persona que desempeñe las funciones de Alcaldía. Transcurrido el plazo de 3 meses desde que se cursó la solicitud sin que se haya notificado acuerdo expreso, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

La formalización de la cesión de uso y de las condiciones de la misma serán recogidas en un documento o convenio.

Por su carácter de precaria el Ayuntamiento podrá extinguir la cesión en cualquier momento, sin indemnización, previo requerimiento realizado a la persona interesada con un mes de antelación.

Será causa de rescisión del convenio el incumplimiento de éste en alguna de sus obligaciones. En este caso, con carácter previo a la rescisión, el Ayuntamiento dará audiencia a la parte interesada por plazo de 15 días para que alegue lo que crea conveniente.

TÍTULO 4

NORMAS GENERALES DE USO Y FUNCIONAMIENTO

Artículo 12. Uso compartido.

En el caso de las cesiones de espacios de carácter temporal, el criterio general establecerá la obligación de uso compartido, fijando a tal efecto las condiciones, horarios o fechas.

Cuando de las actividades y finalidades para las que se solicite el espacio, se desprenda la imposibilidad de compartirlo, el acuerdo de autorización o cesión podrá establecer el uso exclusivo.

Los horarios de uso podrán ser modificados potestativamente por parte del Ayuntamiento para adecuarlos a las necesidades reales de las distintas Asociaciones o Colectivos en un mismo espacio.

Artículo 13. Mantenimiento.

Las asociaciones estarán obligadas a la conservación diligente de los espacios y materiales de uso exclusivo y de uso compartido y en general de todo el inmueble, como también, en su caso, del mobiliario, respondiendo de los daños que puedan ocasionar sus personas miembros o usuarias, bien por acción o por omisión, efectuando de forma inmediata y a su cargo, previa autorización del Ayuntamiento, las reparaciones necesarias. Corresponderá a la entidad beneficiaria el mantenimiento y las reparaciones de los bienes muebles incluidos en la cesión.

Las entidades beneficiarias no podrán realizar en el espacio cedido para su uso exclusivo o compartido, ni en general en todo el inmueble, ningún tipo de obra o actuación sin la expresa autorización del Órgano competente.

Las entidades beneficiarias deberán pedir permiso para utilizar aparatos eléctricos en los espacios y materiales, como calefactores o similares.

Las obras o actuaciones quedarán en beneficio del bien inmueble, sin derecho a percibir ningún tipo de indemnización o compensación económica por su realización. En caso de realizar obras por las entidades beneficiarias sin autorización, desde la Administración Municipal se podrá ordenar que se restituya el bien a su estado original, sin derecho a indemnización o compensación económica. En caso de no hacerlo, se podrán ejecutar subsidiariamente las obras de restitución, estando obligada la entidad a

ta ezinezkoa bada ondasuna kaltetu gabe, kausatzaileak kalte-ordaina eman beharko du sortutako kalteengatik.

14. artikulua. Erantzukizun zibila.

Erakunde bakoitza bere kideek eta erabiltzaileek lagatako espazioetan eta materialetan hirugarrenei eragindako kalte-galeren erantzule zuzena izango da, egitez edo ez-egitez, dolo edo zabarkeriaz, eta Udala bera ere hirugarren izango da.

15. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Onuradun guztiak bete beharko dituzte erregelamendu honetako xedapen orokorrak. Espazioak eta materialak erabiltzeko eskubideak berekin dakar eskubide hori arautzen duten arauak onartzea, eta horiek ez betetzeak eskubide hori galtzea dakar.

Udalak espazio eta materialen erabilera atzera bota dezake, baldin eta erabilera okerra bada, jarduera arrazoirik gabe aldatzen bada, istiluak edo jokabide txarra badaude, erregelamenduzko arauak betetzen ez badira eta, oro har, erregelamendu honetan xedatutako kasu guztietan.

Udalak ez ditu zuzentzen ez onartzen lagatako espazioetan eta materialetan egin beharreko jarduerak. Elkarrekin ez dute inolako mendekotasun-harremanik Udalarekin, eta hau, ez zuzenean, ez subsidiarioki, ez da egiten eremuaren barruan gerta daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralen erantzule.

Beste artikulua batzuetan xedatutakoaz gain, honako hauek ere bete beharko dira:

– Erabilera lagatzeko akordioaren erakunde titularraren ordezkari bat izendatzea. Ordezkari horrek instalazioaren funtzionamendu onaren eta ezarritako baldintzak errespetatzearen ardura izango du.

– Baimendutako erabilera-ordutegiak errespetatzea.

– Lagatako espazioa erakundearen berezko helburuetarako erabiltzea, aurkeztutako jarduera-programa gauzatzuz.

– Gunean hirugarrenen merkataritza-publizitaterik ez egitea, udalaren baimenarekin ez bada. Publizitatetzat hartuko da zerbitzuen eta/edo ondasun higigarrien edo higiezin erosteta/salmenta edo kontratazioa zuzenean edo zeharka bultzatzea edo sustatzea helburu duen komunikazio-mota oro.

– Esleitutako espazioak eta gunea partekatzen duten beste erakunde edo elkarte batzuk errespetatzea, haien jardueren garapen normalean eragin gabe.

– Espazioen eta materialen xedea errespetatzea.

– Erabilera-ordutegietan auzokoei eragozpenik ez sortzea eta inguruko lasaitasuna ez oztopatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako neurri egokiak hartuta.

– Guneko giltzak zaindu eta ixtea, azken erakunde erabiltzaile denean, besterik xedatzen ez bada. Erabiltzeko esleitutako espazioak eta materialak osasungarritasun- eta higieze-baldintza ezin hobeetan kontserbatzea. Aldi berean, lagatako espazioak eta materialak behar bezala erabiltzen direla zainduko da, eta erabiltzaileak zainduko eta kontrolatuko dira.

– Esleitu zaion espazioaren erabilera hirugarrenei ez lagatzea, ez osorik ez partzialki, elkarteko kide izan ala ez.

– Gerta daitezkeen edozein irregulartasun, gorabehera edo arazoren berri eman beharko zaio kasuan kasuko udal sailari; larrialdiren bat gertatuz gero, berehala jakinarazi beharko zaio.

sufragar el coste. Si la restitución fuera imposible sin el menoscabo del bien, se obligará a quien haya realizado las obras a indemnizar por los perjuicios ocasionados.

Artículo 14. Responsabilidad civil.

Cada entidad será responsable directa de los daños y perjuicios ocasionados a terceras personas en los espacios y materiales cedidos causados por sus personas miembros o usuarias, bien por acción o por omisión, dolo o negligencia, teniendo la condición de tercera persona también el propio Ayuntamiento.

Artículo 15. Obligaciones de personas y/o grupos y asociaciones beneficiarias.

Las personas, y/o grupos y asociaciones que hayan sido declaradas beneficiarias estarán obligadas a cumplir las disposiciones generales contenidas en el presente Reglamento. El derecho de uso de los espacios y materiales implica la aceptación de las normas que lo regulan y su incumplimiento conlleva la pérdida de dicho derecho.

El Ayuntamiento puede revocar el uso de los espacios y materiales en caso de mal uso, cambio sin motivo de la actividad para la que se concede, altercados o mala conducta, incumplimiento de las normas reglamentarias y en general en todos los casos dispuestos en este reglamento.

El Ayuntamiento no dirige ni presta conformidad a las actividades a realizar en los espacios y materiales cedidos. Las asociaciones no tienen ninguna relación de dependencia con el Ayuntamiento que no se hace responsable ni directa ni subsidiariamente de los daños materiales, personales o morales que puedan producirse dentro del espacio.

Además de lo dispuesto en otros artículos también será obligatorio lo siguiente:

– Nombrar un representante de la Entidad titular del acuerdo de cesión de uso que será responsable del buen funcionamiento de la instalación y del respeto de las condiciones establecidas.

– Respetar los horarios de utilización autorizados.

– Destinar el espacio cedido a las finalidades propias de la entidad, realizando el programa de actividades presentado.

– No realizar en el centro ningún tipo de publicidad mercantil de terceras personas, salvo con autorización municipal. Entendiendo por publicidad toda forma de comunicación que tenga por objeto favorecer o promover, de forma directa o indirecta, la compra/venta o contratación de servicios y/o bienes muebles o inmuebles.

– Respetar los espacios asignados y a otras entidades o asociaciones que compartan el centro sin interferir en el normal desarrollo de sus actividades.

– Respetar la finalidad de los espacios y materiales.

– No causar molestias al vecindario ni perturbar la tranquilidad de la zona durante los horarios de utilización, adoptando las medidas oportunas establecidas en la normativa vigente.

– Custodiar las llaves del centro y a cerrarlo cuando sea la última entidad en usarlo, salvo que se disponga otra cosa. A conservar los espacios y materiales asignados para su uso en óptimas condiciones de salubridad e higiene. Al mismo tiempo velarán por el buen uso de los espacios y materiales cedidos, ejerciendo la vigilancia y el control de las personas usuarias.

– No ceder a terceras personas, ni total ni parcialmente, sean o no miembros de la asociación, el uso del espacio que le ha sido asignado.

– Comunicar al departamento municipal correspondiente cualquier anomalía, incidencia o problema que pueda surgir, debiendo efectuarse con carácter inmediato en el supuesto de urgencia.

– Lagapen edo baimen erabakia iraungi edo ebatzi ondoren, lagapenaren xede diren espazio eta materialen erabilera jatorrizko egoeran Udalari itzultzea, erabilerak eragindako higadura izan ezik.

– Erregelamendu hau, indarrean dagoen araudia eta erabiltzeko lagapen- edo baimen-akordioa betetzen direla zaintzeari dagokionez, Udalari uneoro jarraipena eta ikuskapena egiteko ahalmena ematea, espazio eta material desberdinetarako sarbidea erraztuz eta eskatzen den informazioa eta dokumentazioa emanez.

– Baimena ematea beste erakunde edo elkarte batzuek espazioaren erabilera puntuala egin dezaten proiektu zehatzak garatzeko edo erabilera partekatzeke, kasuan kasuko udal-zerbitzuek gainbegirata.

– «Udal-instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga-ordenantza» ezarritako tasa ordaintzea, hala dagokionean.

– Jarduera adingabeek egiten badute, heldu arduradun bat egongo da beti.

– Aseguru bat kontratatzea, hala behar duten jardueretarako.

– Kalteak bere gain hartzea, halakorik badago.

– Jardueretako materiala horretarako erabiltzen diren espazioetan eta materialetan biltegitratzea, espazio eta material komunak libre utzita.

– Jardueraren arduradun bat izendatzea, kasuaren arabera honako hauek egin ditzan: ordutegiak, jarduera egin ondorengo espazioaren bilketa, garbiketa, jardueraren hondakinen bilketa, argien kontrola, txorrotak eta abar. Kontuan izan behar da espazioak egoera onean geratu beharko duela, beste elkarte batzuek erabil dezaten.

– Baimendu zaion egutegira eta ordutegira egokitzea, eta beste taldeentzako orduetan ezin izango dira espazioak eta materialak erabili.

– Jarduerarekin bat datozen materialak erabiltzea eta espazioko ondasun higigarriak eta higiezinak ez aldatzea.

Honako jarduera hauek berariaz ez dira baimenduko:

– Espazioetan eta materialetan ezarritako ordutegietatik kanpo egotea.

– Indarrean dagoen edozein segurtasun-araudi urratzen duen edozein jarduera egitea.

– Material arriskutsuak (produktu sukoiak, etab.) erabiltzea / biltegitratzea dakarren edozein jarduera egitea.

– Edari alkoholodunak edo tabakoa biltegitratzea, saltzea edo kontsumitzea. Salbuespen gisa, Udalak horrelako jarduerak baimendu ahal izango ditu, interesdunak hala eskatuz gero.

– Espazio eta materialetan aldi baterako egiturak edo egitura finkoak jartzea, guztiz edo partzialki erabiltzea eragozten dutenak eta espazioaren azpiegitura modu finkoan edo aldi baterako aldatzen dutenak.

– Alkoholaren edo beste droga batzuen eraginpean daudelako zantzuak dituzten pertsonak sartzea.

– Tabakoa, alkoholodun edariak edo beste edozein droga kontsumitzera bultzatzen duen publizitatea jartzea, ezta apustuena ere.

16. artikulua. Arau-haustek.

Arau-haustetzat hartuko dira lokalen lagapen-hartzaileen jarduketak guztiak, erregelamendu honetan ezarritako arauak urratzen badituzte, honako kalifikazio honen arabera:

– A revertir al Ayuntamiento, una vez extinguido o resuelto el acuerdo de cesión o autorización, el uso de los espacios y materiales objeto de la cesión en su estado originario, salvo el desgaste sufrido por el uso.

– A permitir en todo momento al Ayuntamiento el ejercicio de la facultad de seguimiento e inspección en cuanto a vigilancia del cumplimiento de este Reglamento, de la normativa vigente y del acuerdo de cesión o autorización de uso, facilitando el acceso a los diversos espacios y materiales y proporcionando la información y documentación que sea requerida.

– Autorizar la utilización puntual del espacio por parte de otros organismos o asociaciones para el desarrollo de proyectos concretos o para el uso compartido del mismo, bajo la supervisión de los servicios municipales correspondientes.

– Abonar la tasa establecida en la «Ordenanza fiscal reguladora de la tasa por la utilización de instalaciones municipales» cuando corresponda.

– En caso de que la actividad la realicen menores de edad siempre habrá una persona adulta responsable.

– Contratar un seguro en el caso de actividades que así lo precisen.

– Hacerse cargo de los desperfectos, en caso de que los hubiese.

– Almacenar el material de las actividades en los espacios y materiales dedicados a ello, debiendo quedar libres los espacios y materiales comunes.

– Nombrar una persona responsable de la actividad que se encargará según cada caso de: horarios, recogida del espacio tras la realización de actividad, limpieza, recogida de residuos de la actividad, control de luces, grifos, etc. Debe tenerse en cuenta que el espacio deberá quedar en adecuadas condiciones para su uso por otras asociaciones.

– Ceñirse al calendario y horario que se le haya autorizado, no pudiendo acceder a los espacios y materiales en los horarios destinados a otros grupos.

– Usar materiales acordes con la actividad y no alterar los bienes muebles e inmuebles del espacio.

Quedan expresamente desautorizadas las siguientes actividades:

– La permanencia en los espacios y materiales fuera de los horarios establecidos.

– La realización de cualquier actividad que incumpla cualquier normativa de seguridad vigente.

– La realización de cualquier actividad que suponga la utilización/almacenaje de materiales peligrosos (productos inflamables, etc.).

– El almacenaje, venta o consumo de bebidas alcohólicas o tabaco. Excepcionalmente, el Ayuntamiento podrá permitir este tipo de actividades previa petición de la parte interesada.

– Colocar en los espacios y materiales estructuras temporales o fijas que impidan el uso o utilización total o parcial del mismo, así como que alteren de forma fija o temporal la infraestructura del espacio.

– La entrada a las personas que presenten signos de estar bajo los efectos del alcohol u otras drogas.

– Poner publicidad que incite al consumo de tabaco, bebidas alcohólicas o cualquier otro tipo de drogas, ni de apuestas.

Artículo 16. Infracciones.

Se considerarán infracciones todas las actuaciones de las personas cesionarias de locales que contravengan las normas establecidas en este reglamento y conforme a la siguiente calificación:

16.1. Arau-hauste arina: Erregelamendu honetan larrizat edo oso larrizat jotzen ez diren guztiak.

16.2. Arau-hauste larria:

16.2.1. Erantsitako lokaleko edo geletako higiezinan eta/edo altzarietan kalteak eta txikizioak eragitea, behar ez bezala erabiltzeagatik. Balioa: 60 €-300 €.

16.2.2. Lokal horien barruan pertsonak gutxiestea edo iraintzea.

16.2.3. Erregelamenduan deskribatutakoaren arabera, irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiteko debekuari buruzkoa ez betetzea.

16.2.4. Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea, gutxienez hiru aldiz.

16.3. Arau-hauste oso larria: atxikitako lokalean edo geletan hirurehun eurotik (300 €) gorako balioa duten kalteak eta txikizioak eragitea, erabilera desegokiagatik, bai eta arau-hauste larri bat behin eta berriz egitea ere, gutxienez bi aldiz.

17. artikulua. Zehapenak.

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteak egiten dituzten pertsonen eta/edo kolektiboen, dagozkion espedienteaz izapidetuta, zehapen hauek ezarriko zaizkie:

17.1. Arau-hauste arinak: bostehun euroko (500 €) arteko isuna, eta lokala erabiltzeko baimena gehienez hiru hilabeterako kentzea.

17.2. Arau-hauste larriak: bostehun euro eta zentimo bat (500,01 €) eta mila eta bostehun euro (1.500 €) arteko isuna, eta lokala erabiltzeko baimena hiru hilabete eta egun batetik bi urtera arteko epealdirako kentzea.

17.3. Arau-hauste oso larriak: mila eta bostehun euro eta zentimo batetik (1.500,01 €) hiru mila eurora (3.000 €) bitarteko isuna, eta lokala erabiltzeko baimena kentzea bi urte eta egun batetik behin betiko gabetzera arte.

Xedapen gehigarria.

Araudi hau aplikatzean edo bertan arautu gabeko alderdi jakin batzuei buruz sor daitezkeen zalantzak Alkateak ebatziko ditu, Herritargoko Batzordeak irizpena eman ondoren. Aipatu Batzordeak irizpena eman aurretik, dagozkion txosten teknikoak eta juridikoak jasoko dira. Alkatearen erabakiek administrazio-bidea amaituko dute, eta horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legearen aurreikusitakoaren arabera. Nolanahi ere, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Azken xedapena.

Araudi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN OSORIK argitaratzen denetik 15 egun baliogun igarotakoan jarriko da indarrean, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Aurreko erregelamenduak indargabetzen ditu.

I. ERANSKINA

Araudi honen arabera lagako diren espazioak eta materialen zerrenda.

- Lekaino kultur etxeko areto nagusia eta bilera-gela.
- Errekalde kaleko 1. zenbakiko aretoa.
- Sarobe AEGko antzokia eta beste aretoak, erabilera ez profesionaletarako.

16.1. Infracción leve: Todas aquellas que en el presente Reglamento no se consideren graves o muy graves.

16.2. Infracción grave:

16.2.1. Causar daños y destrozos en el inmueble y/o muebles del local o dependencias anexas por uso indebido valoradas entre 60 € y 300 €.

16.2.2. Menospreciar o insultar a las personas dentro de dichos locales.

16.2.3. Incumplir lo relativo a la prohibición de realizar actuaciones con ánimo de lucro según se ha descrito en el Reglamento.

16.2.4. La reiteración, al menos en tres ocasiones, en la comisión de infracciones leves.

16.3. Infracción muy grave: Causar daños y destrozos en el inmueble y/o muebles del local o dependencias anexas por uso indebido valoradas en más de 300 €, así como la reiteración, al menos en dos ocasiones, en la comisión de una infracción grave.

Artículo 17. Sanciones.

A las personas y/o colectivos que cometan las infracciones tipificadas en el artículo anterior, instruido el correspondiente expediente, se les impondrán las siguientes sanciones:

17.1. Infracciones leves: multa de quinientos euros (500 €) y privación del uso del local de hasta tres meses.

17.2. Infracciones graves: multa de entre quinientos euros y un céntimo (500,01 €) hasta mil quinientos euros (1.500 €) y privación del uso del local desde tres meses y un día hasta dos años.

17.3. Infracciones muy graves: multa desde mil quinientos euros y un céntimo (1.500,01 €) hasta tres mil euros (3.000 €) y privación de uso del local desde dos años y un día hasta privación definitiva.

Disposición adicional.

Las dudas que puedan surgir en la aplicación de este Reglamento o sobre aspectos puntuales no regulados en el mismo, serán resueltas por la Alcaldía previo dictamen de la Comisión de Ciudadanía, previos los informes técnicos y jurídicos que se consideren pertinentes, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y contra los mismos habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme al previsto por la Ley reguladora de dicha jurisdicción, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan interponer recurso potestativo de reposición, previsto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Disposición final.

El presente reglamento entrará en vigor una vez transcurridos 15 días hábiles desde su publicación íntegra en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa conforme a lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, continuando su vigencia hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Deroga los reglamentos anteriores.

ANEXO I

Relación de espacios y materiales cuya cesión regirá la presente normativa.

- Sala polivalente y sala de reuniones de la casa de cultura Lekaino.
- Sala del n.º 1 de la calle Errekalde.
- Sala de teatro y otras salas del CAE Sarobe, para usos no profesionales.

– Udal pilotalekua eta kirol-pistak, kirol-erabilerarako ez de-
nean.

– Kiroldagiko boxak, erabilera anitzeko aretoa eta entsegu-
gela handia.

– PVC-zko mahaiak.

– Aulkiak.

– Hesiak.

– Oholtza.

– Bozgorailu aktiboa (autoanplifikatua).

Zerrenda hau orientagarria da eta Udalak zerrendan ageri ez
diren bestelako espazioak eta materiala ere laga ahal izango ditu.

– Frontón municipal y pistas polideportivas: para usos no de-
portivos.

– Boxes, sala polivalente y sala de ensayos grande del polide-
portivo.

– Mesas de PVC.

– Sillas.

– Vallas.

– Tablado.

– Altavoz activo (autoamplificado).

Este listado es orientativo y el Ayuntamiento podrá ceder otros
espacios y materiales no relacionados en el mismo.